



**1/2013 JARRAIBIDEA, APIRILAREN 25EKOA, INGURUMEN SAILBURUORDEARENA, LURZORUAREN KALITATEARI BURUZKO ADIERAZPENAREN PROZEDURA, 1/2005 OTSAILAREN 4KO LEGEAN, LURZORUA EZ KUTSATZEKO ETA KUTSATUTAKOA GARBITZEKOAN, EZARRITAKOA, EGOERA BATZUETAN SALBUESTEARI BURUZKOA, INGURUMEN SAILBURUORDEZAKO ADMINISTRAZIO-UNITATEETAKO LANGILEEI ZUZENDUA.**

1/2005 Legeak, otsailaren 4koak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoak (aurrerantzean, 1/2005 Legea), helburutzat du partikularrek eta herri-administrazioek lurzorukalitatearen arloan egin beharreko ekintzak arautzea, Euskal Autonomia Erkidegoan taxututako lurzorua babesteko politikaren hiru helburuak lortze aldera; hau da, lurzoruetan beste eraldaketa batzuk agertzeari aurre hartzea, kasurik presakoenei konponbidea ematea eta lurzoru kutsatu modura jarauntsitako pasiboa konpontzeko planak epe ertain eta luzera egitea. 1/2005 Legea indarrean sartu zenetik egindako ekintza ugariak aztertu ostean, Ingurumen Sailburuordetzak adierazi du aurrerapauso handiak eman direla proposatutako helburu horiek lortze aldera.

Hori gorabehera, 1/2005 Legearen eskakizunak hainbat urtez bete izanak irakatsi dizkigun gauzak kontuan hartuta, argi dago EAEko lurzoruaren kalitateari buruzko alderdi batzuei beste ikuspuntu batetik hel diezaiekegula, administrazio honen helburua, hots, lurzorua babestea eta kutsatutako lurzoruak leheneratzea, kaltetu gabe. Alderdi horretatik, eskuarki onartutako printzipio juridiko bat da arauak interpretatzean kontuan hartu behar dugula arau horiek zer testuingurutan eta gizarte-errealitatean aplikatu behar diren eta zer espiritu eta helburu duten.

Zehazki, ikusi dugunez, lurzorua kutsa dezaketen jarduera eta instalazio batzuk (aurrerantzean, LKJ) 1/2005 Legearen II. eranskineko CNAEko (Ekonomia Jardueren Espainiako Sailkapeneko) atal batekin bat datozelako jotzen dira LKJtzat; nolana ere, jarduera horiek nola egiten diren ikusita, argi dago nekez gerta daitekeela aldaketarik lurzoruaren kalitatean. Horrek, ordea, ez du galarazten lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren prozedura (aurrerantzean, LKA) egin behar izatea.

Horiek horrela, ingurumena zuzenean hobetzen ez duten ekintzak ezabatze aldera eta lurzoruaren kutsagarritasunarekin lotutako prozedurak administrazioaren aldetik sinplifikatze aldera, Sailburuordetza honek nahi du jarduera baten CNAE ez izatea irizpide bakarra LKA abiarazteko eta prozedura hori noiz hasi behar den erabakitzeko. Zehazki, beste alderdi batzuk ere kontuan hartu beharko dira; hala nola, lurzoru horretan egin den jardueraren nondik norakoak eta ekoizpen-gaitasuna, eta, jarduera zer instalaziotan egin den, instalazio horien eraikuntza-ezaugarriak.

Pilatutako esperientzia kontuan hartuta, Ingurumen Sailburuordetzaren ustez, jarduera batek kutsatzeko ahalmen txikia du, baldin eta baldintza hauek guztiak betetzen baditu:

- 6/2002 Legeak, uztailaren 1ekoak, kutsaduraren prebentziori eta kontrol integratuari buruzkoak, ez eragitea.
- Kutsadura sor dezaketen guneak estalpean izatea eta lurra behar bezala babestuta egotea leku horretan egin beharreko jarduerarako.
- Ez edukitzea gai arriskutsuak dituen lurpeko instalaziorik, ez eta lurzorua zein lurpeko ura kutsa dezakeen bestelako gairik ere.
- Ez betetzea urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuaren 3.2 artikuluko baldintzak<sup>1</sup>.

Baldintza horiek betez gero, horrek esan nahi du oso aukera gutxi daudela arrisku onartezin bat gertatzeko. LKAren helburua arriskuaren larritasuna neurtzea dela kontuan hartuta, gogora dezagun egoera horietan prozedura salbuetsiko dela, baldin eta lekuan industria-jardueraren bat egiten jarraitzen badute (ez da hain erabilera zuhurra) eta ez badute asmorik ustezko kutsatzaileak agerian jar ditzaketen lurrak mugitzeko eta azpi-harriak kentzeko.

Apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenaren, 10.2.b) artikulua araber, Ingurumen Sailburuordetzari dagokio ingurumen arloko arauak prestatzeko lanak sustatzea.

Apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenaren, 5.a) artikulua araber, Saileko sailburuordeei dagokie “Sailburuordetzako organo eta unitateei zuzendutako jarraibideak eta zerbitzu-aginduak ematea, ondo funtziona dezaten”.

Lege-xedapen horien araber eta aipatutako 1/2005 Legea aplikatuz ikasitakoak kontuan hartuta, kutsatzeko ahalmen txikia duten LKJk jartzeari, handitzeari eta bertan behera uzteari dagokionez, Ingurumen Sailburuordetzak INTERPRETAZIO-IRIZPIDE HAUEK EZARRI DITU jarraibide honen bidez, Ingurumen Sailburuordetzako administrazio-organoko eta -unitateetako langileek aplikatu dituzten:

**LEHENENGOA.- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak (LKJ) kutsatzeko ahalmen txikia izango dute, baldin eta baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:**

- 6/2002 Legeak, uztailaren 1ekoak, kutsaduraren prebentziori eta kontrol integratuari buruzkoak, ez eragitea.

<sup>1</sup> Urtarrilaren 14ko 9/2004 Errege Dekretuaren, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izendatu eta lurzoru kutsatuak izendatzeko irizpideak eta estandarrak ezartzen dituenaren, 3.2. artikulua: “Halaber, lurzoruaren egoerari buruzko atariko txostena aurkeztu beharko dute, nahitaez, martxoaren 10eko 363/1995 Errege Dekretuan –substantzia berriak jakinarazteari eta substantzia arriskutsuak sailkatzeari, ontziratzeari eta etiketatzeari buruzko araudia onartzen du– agertzen diren substantzia bat edo batzuk urtean 10 tona baino gehiago ekoizten, erabiltzen edo biltegitratzen dituzten enpresek, eta urriaren 1eko 1523/1999 Errege Dekretuaren araber –urriaren 20ko 2085/1994 Errege Dekretuak onartutako petrolio-instalazioen araudia, irailaren 15eko 1427/1997 Errege Dekretuak onartutako MI-IP03 jarraibide tekniko osagarriak eta abenduaren 28ko 2201/1995 Errege Dekretuak onartutako MI-IP04 aldatzen ditu–, norberak erabiltzeko erregiak biltegitratzen dituztenek, baldin eta urtean 300.000 litro baino gehiago kontsumitzen badituzte eta guztira 50.000 litro edo gehiagoko bolumena biltegitratzen badute”.



- Kutsadura sor dezaketen guneak estalpean izatea eta lurra behar bezala babestuta egotea leku horretan egin beharreko jarduerarako.
- Ez edukitzea gai arriskutsuak dituen lurpeko instalaziorik, ez eta lurzorua zein lurpeko ura kutsa dezakeen bestelako gairik ere.
- Ez betetzea urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuaren 3.2 artikuluko baldintzak.

**BIGARRENA.-** 1/2005 Legeko 17.1 a) artikuluko inguruabarrak aldi berean gertatzen badira, hots, LKJ bat duen edo izan duen lurzoruan jardueraren bat jartzen eta handitzen bada, jarduera hori kutsatzeko ahalmen txikia duen jardueratzat jotzen bada, leku horretan industria-jardueraren bat egiten jarraitzen badute eta ez badute asmorik lurrak mugitzeko edo azpi-harriak kentzeko, **ez da eskatuko lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren prozedura hastea; izan ere, kutsaduraren iturria, kutsatzeko bideak eta kutsa daitezkeen gaiak tipifikatzen dituzten hiru faktore nagusiak bat eginez gero, esan dezakegu leku horretan egin asmo duten industria-jarduerak ez duela arrisku onartezinik.**

**HIRUGARRENA.-** **Halaber, ez da eskatuko lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren prozedura hastea,** baldin eta, 1/2005 Legeko 17.1 c) artikuluan xedatutakoaren arabera, LKJ bat behin betiko bukatzen edo ixten bada eta aurreko idatz-zatian jasotako baldintzak betetzen badira.

**LAUGARRENA.-** Kasu horietan ez da eskatuko lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren prozedura bideratzeko. Dena den, horrek ez du esan nahi organo eskudunek beren ahalmena erabili behar ez dutela egoki deritzen neurriak jartzeko lurzoruak babesteko eta kutsadurari aurre hartzeko. Neurri horiek eskatu ahal izango dituzte dagokion jarduera sailkatuen prozeduran, edo sektore-araudietan jasotako gainerako administrazio-arloko baimenetan edo esku-hartzeetan.

**BOSGARRENA.-** Ingurumen Sailburuordetzaren administrazio-unitateen jardunean jarraibide honen aginduei jarraitze aldera, inplikaturako eragileek (udalek, foru-aldundiek, egiaztatutako erakundeek, proiektugileek eta abarrek) berariaz aipatu beharko dituzte jarraibide honetan jasotako egoera zehatzak beren espediente eta kontsultetan, zertarako eta, jarduera-mota, lurrak mugituko ez direla eta lekua nola erabiliko den kontuan hartuta, salbuespena aplikatzeko. Horretarako, organo honek Ingurumen eta Politika Sailaren web-orrian komunikazio horiek egiteko beharrezko inprimakiak jarriko ditu eskuragarri.

**SEIGARRENA.-** Jarraibide hau onartu eta hurrengo egunetik aurrera aplikatu beharko da, eta herri-administrazioen, ingurumen-eragileen eta, oro har, herritarren eskura egongo da, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren webgunean.

**ZAZPIGARRENA.-** Bideratzen ari diren lurzorua kalitatearen adierazpeneko prozedurak, instrukzio honi jarraiki salbuetsiak izan badaitezke, dokumentu honek ezarritakoaren arabera bideratu ahal izango dira, interesatuak ahal eskatzen badu eta prozedurak ez badu behin betiko ebazpena jaso.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko apirilaren 25an

**INGURUMENEN SAILBURUORDEA  
EL VICECONSEJERO DE MEDIO AMBIENTE**



**Jose Antonio Galera Carrillo**